


Abarkagintza

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Santxo abarka

Ba al dakizue nor izan zen Santxo Abarka? Ikertu ezazue bere istorioa.

“Made in China” oinetakoak

Konpara ezazue hemen bertan egindako oinetako bat eta Txinan egindako bat:

	BERTAKOA	MADE IN CHINA
Lan baldintzak		
Soldatak		
Erabiltzen diren materialak		
Garraio gastuak		
Ingurumenean eragina		
Kontsumitzaileentzat onura		

Marka ezagunetako oinetakoak hartu eta non eginak diren begiratu:

· Zenbat kilometro egin dituzte zure oinetakoek zugana iritsi arte?

.....

· Zergatik egiten dituzte leku horretan?

.....

· Hau ikusirik zer ondorioztatu dezakezu?

.....

Markako kirol zapatila gehienak Asiako Hego Ekialdean egiten dira, bertan umeak lanerako erabiliz eskulan merkea lortzen dute:

· Zenbat balio zuten azkena erosi dituzun kirol zapatilek?

.....

· Ba al dakizu diru horretatik %1 inguru besterik ez doala ekoizleentzat? Beraz, zenbat ordaindu diote zure zapatilak egin dituenari?

.....



• Bidezkoa iruditzen al zaizu?

.....

• Zer egin dezakegu guk hori ekiditeko?

.....
.....




Bisita egin eta gero

Seguru aski Astiazaran baserrian egon ondoren abarkak egiteko gai izango zara. Eta ez hori bakarrik, larrugintzan, orokorrean ere aditua izango zarela izan daiteke. Konprobatu nahi al duzu?



Larrugintza prozesuaren pausoak eta materialak

 *Ordена itzazu larrugintza prozesuko pauso hauek, azaldu zein den pauso bakoitzaren funtsa eta zein material erabiltzen den:*

• Larruen tindaketa:

.....
.....

• Larruazalaren zerratzea (ebaketa):

.....
.....

• Beratze edo ontzea:

.....
.....

• Kare-garbiketa:

.....
.....

• Garbiketa edo bustialdia:

.....
.....

• Larruaren kontserbazioa:

.....
.....

• Koipeztaketa:

.....
.....

• Depilatu (ilea kendu):

.....
.....

• Haragi-bereizketa:

.....
.....





Artisautza hiztegia

 Lotu ezazu hitz bakoitza dagokion definizioarekin (alde batean definizioak eta bestean hitzak):

HITZA	DEFINIZIOA
Aiztoa	Larrua usteldu ez dadin eta erabilgarria izan dadin egiten den prozesua
Koipetu	Handitzearen ekintza eta ondorioa
Legamia	Koipeztatzearen prozesua
Oin-bularra	Tresna ebakitzaila, altzairu edo burdinazko xafla aho bakarrez eta kirten batez osatua
Taxutu	Oinaren gainaldea
Hiltegia	Metalezko tresna puntazorrotza, larruan, goma eta b. etan zuloak edo markak egiteko erabiltzen dena
Ondu	Edari alkoholikoak, ogia eta beste hainbat elikagai egiteko beharrekota den hartzidura aurrera eramateko gai diren onddoen izena
Eztena	Abereak hil eta larrutzen diren tokia
Hantura	Zerbaiti forma edo itxura jakina eman



Gaur egun eskuz egindako produktuak, produkzio mekanikoaren aurrean zein desberdintasun dutela azpimarratuko zenuke?

.....

.....

.....

.....

.....

Zer uste duzu baloratzen dela eskulangintzaz egindako produktu batean?

.....

.....

.....

.....

.....

Eguno artisauak eta duela mendebatzuk lan bera egiten zutenak alderatuz, errekonozimendu edo balio bera dutela iruditzen al zaizu? Zein desberdintasuna dute?

.....

.....

.....

.....

.....

“Baserria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ...ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!